



Irudia: EH-Bildu

Espainiar konstituzioaren 40. urteurreneko testuinguruan, EH-Bilduk manifestazioa egin du Bilboko kaleetan zehar. Milaka pertsona atera dira euskal errepublika aldarrikatzeko. Manifestazioa eliptika plazatik atera da, San Nikolas elizaren aurrean bukatuz. Mobilizazio honen bidez, EH-Bilduk salatu du Euskal Herriko herri klaseentzat (langabetuak, langileak, emakumeak, pentsiodunak...) espainiar konstituzioa zama bat dela eta beraiantzako etorkizun bakarra euskal errepublika eraikitzea dela.